

Marixela Ramos

Mesa Grande esparrukoa
jatorriz, El Salvadorrenaioa.

Radio Victoria irrati
komunitarioaren kide.
12 urte baino gehiago irrati
omunitarioekin lanean.



Mesa Grande (Honduras) deituriko errefuxiatu kanpamenduan jaio nintzen, 80ko hamarkadan. 1992. urtean, beste errefuxiatuekin batera, nire lurraldera itzuli ahal izan nintzen azkenean eta egun Santa Marta komunitatean bizi naiz, El Salvadorren hain zuzen. Hainbat antolatze talderen kide naiz eta, bereziki, emakume talde independente bateko burukideetako bat nauzue, komunitateko emakumeen bizipenak, lana eta herrialdea beraren egoera sozio-politikoa aztertzen dituen. Hementxe nauzue beraz!

Boluntario gisa sartu nintzen irratian 2006. urtean. Hasiera batean, soilik iragarki txikiak grabatzen nituen, hezkuntza kanpainez arduratzen den produkzio sailean. Gero, gidoi txikiak ere idazten hasi nintzen, irratia bera izan zen nire ikasgela. Herri heziketa eredua praktikatzeko duen irrati bat da, hau da, zertxobait dakienak heldu berriari irakasten dio, eta horrela belaunaldiz belaunaldi ikasiz aurrera jarraitzen dugu. Irratia komunikazio eskola ere bilakatu da, eta ehunka gazte igaro dira bertatik jada; gazteak parte hartzeko gune bat da azken finean.

Hortik, prentsa saila zuzentzera pasatu nintzen, 5 urte ematen nituen han. Garai hartan meatzaritzaren aurkako lehia eman zen eta Cabañaseko meatzaritza gatazka jorratzen zuten espazioak zuzentzea egokitu zitzaidan. Albistegian atal berri bat sortu genuen: "La otra cara de la minería", irratiaren iritzia ematen zen bertan eta ingurumen-mugimenduek bideratutako espazioetan irratia beraren bozeramaile lana betetzen zuen. Gaur egun, irrati-etxe honetako zuzendaritza taldeko kidea naiz. Asociación de Radios Comunitarias de El Salvador (ARPAS) elkarteko zuzendariordea ere banaiz, 2018an hasi eta 2020. urte arte behintzat.



Santa Marta udalerrian izugarrizko sarraskia eman zen 80ko hamarkadan. 1981. urtean El Salvadorreko armadak “tierra arrasada” deituriko estrategia politiko-militarra burutu zuen bertan. Helburua, bizitza izan zitekeen edozer akatzea zen: pertsonak, animaliak... dena. Honako ekintza militar bat burutzean, argi eta garbi azpimarratzen ari zara ez duzula inor bizirik utziko. Gauzak horrela, komunitatea antolatu egin zen eta, Lempa ibaia zeharkatuz, Hondurasera ihes egin behar izan zuen. 7 urte igaro genituen erbestean. Lau txanda behar izan ziren Santa Martako biztanleria osoa berriro bere lurrera itzultzeko: 1987an lehena, ondoren 1988an, 1989an hirugarrena eta, azkena, 1992ko martxoaren 22an, Bake Akordioak sinatu eta gero hain zuzen. Azken honetan bueltatu nintzen ni.

Santa Martaren birsortze prozesu hau oso gogorra izan zen hasiera batean, mendietan bizi behar izan zuten eta lehenbiziko etxebizitzak nylon hutsez zeuden eginak, umeak euritik babesteko. Itzulera urrian eman zen, neguan bertan. Gero, ekoizpena martxan jarri behar izan zen, nekazaritzatik erabat bizi garen herria baikara, artoa eta babak ereitetik batez ere. Erbeste garaian, kanpamendua Mesa Grande izeneko eremu batean zegoen, Ocotepec eskualdean, lur guztiz lehorrak ziren haiek, erabat idorrak. Orduan, komunitatea antolatu eta modu kolektiboan ekoiztu zituen lur horiek. Ongarri propioak sortu zituzten eta kolektiboki barazkiak lantzen hasi ziren, ondoren haien artean banatzen zirenak ere. Oinarri eta balore hauekin itzuli ziren Santa Martara. Egindako lehenbiziko uztak kolektiboak izan ziren beraz: landu, garbitu, erein eta batu egiten zuten artoa, ondoren denen artean banatzeko. Bizirauteko oinarritzko prozesua izan zen hori.

1992. urtean, behin jende guztia bueltan zelarik, etorkizunari begira jartzeko unea zen, betiere antolatze modu hori oinarri hartuta. Komunitateak planteatutako nahi eta ideien artean, guztiz argi zegoen komunikabide propio bat behar zuela. Agian, garai hartan ez zuten imajinatzen orain duen indarra izango zuen irrati bat sortzen hasia zirela, baina bai bazekiten komunikabide baten beharra nahitaezkoa suertatzen zela. Komunitateen ahotsa entzutea zen helburua, hauek bizi izan zutena ezagutaraztea eta El Salvadorreko armadak erasoetan zuen erantzukizun zuzena salatzea. Haiek, gudarosteak jazarri baina erail ezin izan zutenen testigantza bizia dira, bizirik daude eta asko dago kontatzeke oraindik. Lehen irrati independente hauek birpopulatutako herrietan ematen dira hain zuzen, Guargila, Usultán edota Segundo Montes esaterako. Azken hau, gainera, Hermosote udalerrian kokatzen da, non herrialde osoko sarraskirik latzena eman zen.

Gure herrialdean, Ertamerika eta Latinoamerikako hainbat herrialdetan bezala, komunikazioa oso monopolizatuta dago. Tamalez, hedabide handien jabeek edo korporazio talde handiek informazioa eta zer komeni den esateko ahalmena dute. Beraz, argi zegoen hedabide horiek ez zutela hitz egingo sarraskiez eta armadak komunitateekin zuen erantzukizun historikoaz.

Santa Martan irratigintza hastean, adobez eginiko etxe batetik egiten zen, gela xume batean, eta antena gisa banbu makila bat erabiltzen zen. Horregatik, lehenbiziko emanaldiak komunitatean bertan egiten ziren baina, hala ere, ez zen etxe guztietara heltzen seinalea. Oso hedapen txikia zuen eta istorioa behin eta berriz errepikatzea bezala zen, jadanik bazekitenek jasotzen zutelako soilik informazioa. Orduan, handitze nahi



hori pizten hasi zen, alboko komunitateetara helarazteko, eskualde osora, nazio mailara akaso... 80ko hamarkadan erbesteratuak izan zirenak bizirik zeudela ezagutzea ezinbestekoa zen, eta benetan gertatukoa kontatzeko prest zeudela. Horrek erabat indartu zuen proiektua eta jendea.

1993ko uztailaren 15ean lehen emankizuna aireratu zen, beti hartu izan dugu data hau irratia jaiotegun gisa. Injustiziak salatzeke tresna indartsu bilakatzeaz gain, jendeak bertoko musika eta artistak eskatzeko ere deitzen hasi zen. Jendeak erbestean edota kanpamentuetan bizitako esperientzien inguruko abestiak sortu eta irratira gerturatzen ziren kantatzera. Inguruko komunitateetara helarazi eta hedapena zabaltzeko ideiarekin, Victoria izeneko udalerrira lekualdatu zen irratia, Santa Marta mendi eremu batean kokatua baitago eta horrek emisioa zaildu egiten baitzuen. Hala ere, aipatu beharra dago, Radio Victoria izena ez datorrela emanda kokapenagatik, baizik eta gaztelaniazko “victoria” hitzaren esanahitik ekarria, komunitateak berak lortutako garaipenaren isla hain zuzen. Herri ekimenak sustatu eta bultzatu ditzakeen irratia bat izatea suposatu zuen garaipena, non komunitateak diren protagonista nagusiak eta memoria historikoa eta tokian-tokikoaren lehentasuna bermatzen den.

Erronkak gogorrak izan dira. El Salvadorren, komunikabide alternatiboak, inoiz ez dira ondo ikusita egon. Ez botere ekonomiko-politikoek, ezta gure herrialdean komunikazioaren boterea duten enpresa pribatuak ere, ez gaituzte haien jokoan onartu nahi izan. Beti ikusi izan gaituzte irratia gerrillariak bezala, legez kanpokoak, subertsiboak.

1995ean, Polizia Nazionale Zibila bidez, irratia-estazio komunitario guztiak ezabatzeke eta jazartzeko agindua eman zen, ilegalak gizona argudiatuta eta transmititzeko ez gurela sistemaren inolako baimenik esanez. Lan ekipoa kentzera etorri ziren baina, zorionez, Veronica izeneko polizia bat egokitu zitzaigun, bertan programa bat zuena. Orduan, pertsonak ekipoa, transmisorea eta gainontzeko gailu guztiak kontu handiz deskonektatu zitzaizuten esateko aukera izan genuen. Beraz, ekipoa hondatu gabe egin ahal izan zen erretiro guzti hori. Hala ere, irratia askok ez zuten aukera hori izan eta dena erabat kaltetua geratu zen. Segundo Montes irratia kasu esaterako, transmisorea zeramatzan patruila identifikatzean, jendea kalera bota zen autoak geldiarazteko.

2016. urteko maiatzera arte, ez zen Telekomunikazioen gaineko Legediaren erreforma lortu. Bertan, irratia-frekuentziak enkante bidez erostera behartzen zituen artikulua ezabatzea lortu zen, errekurso ekonomiko gehien zutenen eskutik usten zituztenak, eta baita Estatuaren behin betiko onarpena izatea ere. Hala ere, diskriminazio larria ematen da esparru erradioelektrikoaren baitan. Irratia komunitario hauen kasuak, frekuentziak elkarbanatuak izaten dira oraindik ere, zenbait pertsonak io frekuentzia propio edo gehiago bereganatzen dituzten bitartean, ondoren, talde erlijiosoei alokatzen dizkietenak, merkantzia hutsa balira bezala. Guzti honek, komunikazio eta adierazpen askatasunaren aurkako eraso zuzenak dira. Komunikazio eskubidea, ura edota bizitzarako eskubideen kasuak bezala, oinarritzeko Giza Eskubideen parte direla uste dugu. Beraz, komunikazio komunitario hau guztiz beharrezkoa dugu luraren defentsan tinko jarraitzeko.



Cabañasen Pacific Rin meatzaritza enpresaren aurkako borroka izan genuen 2004an. Enpresa iristean, komunitateek ez zekiten meatzaritza enpresa bat zela. Lanpostuak sortzeaz, meatzaritza berdeaz eta eskualdearen garapenaz hitz egiten heldu ziren, jendeak hori dena sinistu egin zuen. Cabañas El Salvadorreko eskualde pobreenetako bat da, analfabetismo tasa altuarekin eta oso erlijiosoa dena. Enpresak karguak erosten saiatu zen. Lehenengo eta behin, herri agintariengana hurbildu zen, alkateengana, herriko jaiak sustatzen zituzten jendea erabat despistatuta egon zedin, haien inguruan zer gertatzen ari zen ohartu gabe.

Irratian ez genekien ezer meatzaritza horri buruz. Ingurumen erakundeei esker informatzen hasi ginen eta, haiekin batera, zenbait espazioetan parte hartzen hasi ere. Haiei esker, meatzaritzak duen baliabideen beharrianen berri ohartzen hasi ginen: ura nola ustiatzen zuten, pozoï isuriak, prozesuak berak ibilgu naturalak nola kutsatzen zituen etab. Ondoren, komunitateetan sortzen zuten inpaktu soziala arakatzera hurbildu ginen.

Haien ustezko garapena benetan zein zen ikusten hasi ginen. Hasiera batean, enpresak proposatutakoa ustiapenaren irabazien %1a udalerrian inbertitzea zen, beste %1a El Salvadorko estatuarentzat izango zen eta gainontzeko %98a enpresaren jabeentzat, kasu honetan Kanada eta bere elkarreentzat, ziur asko beste herrialde batzuetako kapitalarekin. Hau da, sortutako diru gehiena beste herrialde batzuetara joango zen. Orduan, iragarki txikien bidez edota kapsula hezigarrien bitartez, enpresak ze enplegu mota eskaintzen ari zen azaltzen hasi ginen. Azaldu genien herritarrei lanpostu arriskutsuak oso zirela, lur azpian, pozoia eta zianuroa agerian uzten zituena, eskuekin urrea harkaitzetik zuzenean hazkatzeko. Zer gaixotasun mota sor zitzaketen azaldu genien ere, beste leku batzuetako lekukotasunekin alderatuz, adibidez, Limako Santa Rosa herriarekin. Bertan ibaia guztiz kutsatua geratu zen eta herrikideak giltzurrun-gutxiegitasunez hiltzen hasi ziren, arnas gaixotasunekin, odolean gaixotasun askorekin uretan, airean eta lurrian zauden metal astunengatik. Behin meatzeak eztanda egiten duenean, dena kutsatu egiten da segidan eta pozoï partikula guztiak lurrian geratzen dira. Ez genuen inondik ikusten "meatzaritza berdea" kontzeptua ezta enpresaren ustezko erantzukizuna. Gezurrekin heltzen dira komunitateetara eta inposatutako lekualdatzeak eragiten dituzte.

Irratiak hezkuntza arloan eskainitako laguntza, erakundeen prestakuntzan emandakoarekin batera, guztiz funtsezkoa izan zela uste dugu. Une hartan, komunikabide gisa, alde batera edo bestera kokatu behar izan genuen gure burua. Alde hori zein zen oso argi geneukan: komunitateena. Hedabideak erdigunean kokatuta egon behar gara dion eskema hori erabat apurtu genuen, gu ez ginen inpartzialak izango. Komunitateak bideratzen zuen borrokarekin bat egin genuen, horren parte ginen azken finean. Bortxaketak eta bidegabekeriak ematen diren kasuetan, inor ezin da inpartzial geratu.

Bestalde, tokikogertaera soil bat izan litekeena, agenda nazionalera ere eramatea lortu genuen. Hasiera batean, Cabañas izeneko iparraldeko herrixka xume batean meatzaritzak sortutako arazo gisa antzematen zen. Jendeak ondorio nazionalak izan zitekeen arazoa ere zela ez zuen ikusten hasiera batean: Lempa ibaia



kutsatuko balitz, bertatik ura jasotzen duten salvadortar guztiek ondorioak pairatuko lituzkete, eta honek herrialdearen biztanleriaren erdia edo gehiago suposatzen du. Estatu kontua zela jakitera ematen hasi ginen irratia erabiliz, enpresaren estrategien aurrean instantzia publikok ohartzea nahitaezkoa suertatzen zen.

Egun horietan, enpresa dirua eskaintzera gerturatu zen: gu erosi nahi gintuzten haien aldeko kanpaina bat bideratzeko, nolabaiteko meatzaritza berdearen ingurukoa. Ezetz borobila izan zen gure erantzuna, informazio guztia geneukan jadanik eta bagenekien “berde” hori ez zela inondik agertzen. Bizitzaren aurkako eraso bat zen. Gu herriaren adierazpenen bozeramaileak ginen, herri ezagutzarena hain zuzen. Askotan, komunitateak ikasgabetzat jotzen dira, baina haien ezagutza propioak izan badituzte. Enpresek, sarritan, ezagutza horiek gutxietsi egiten dituzte eta, izan ere, bertatik lortzen dugu gure barne indar nagusiena borrokatzen jarraitzeko. Oso erabaki politiko garrantzitsuak dira, gauza pilo arriskuan jartzen baitira.

Orduan mehatxuak ailegatu ziren. Gure ezezkoa jasotzean, beldurraren estrategia abian jarri zuten. Isilarazi nahi izan gintuzten eta jaramonik egiten ez geniola antzematean, erailketak hasi ziren. Marcelo desagerrarazi zuten. Lider sendoa zen, kultur etxeko zuzendaria, herri komunikabideko iturrietako bat, jai herrikoietan parte hartzen zuen... harreman oso estua zuen irratiarekin. Marceloren desagertzea oso gogorra izan zen guretzat.

Marcelo egun eta gauz bilatzen zuten, hala zeritzon poliziak behintzat. Arakatzeko patruilak bazituzten bai baina guk, hedabide gisa, bizirik aurkitzeko ez zutela ahalegin handirik egiten antzematen genuen. Salaketa kanpaina bat abian jarri genuen orduan. Lehenik eta behin, sistema beraren erantzukizuna: zer gertatzen ari zen Fiskaltzarekin? Poliziarekin? Bilaketan ez zutela inolako arretarik jartzen nabaritzen genuen. Jendeak deitzen zuenen, ikaraz kontatzen ziguten Marcelo bizirik nola eramán zuten ikusi zutela. Ezin dezakegu frogatu kontatutakoa egia zen ala ez, edota terrorearen kanpaina horren baitan emandako estrategia zen, baina hala kontatzen zuten haiek behintzat. Marcelok 11 egun eman zituen desagertuta. Egun guzti horietan, gure lagunaren bahiketa eta gertatu zitekeen edozer gauza enpresaren erantzukizun zuzena izango zela behin eta berriz azpimarratu genuen irratia bitartez, haiek etorri baitziren komunitatearen egunerokotasuna hankaz gora jartzera.

Mehatxuak asko areagotu ziren orduan: Marcelori gertatutakoa geuri ere pasatu ahal zitzaigula esanez, desagerraraztea, torturak... Azkenean, Marceloren gorpua agertu zen: eskuak loturik zituen eta torturatu izanaren aztarnak baita. Gure nagusiek, El Salvadorreko gatazka armatua bizi izan zutenak, honakoa errepikatzen zuten: “Marcelo gure garaian herio-eskuadroiek erailtzen zuten antzera akatu dute”. Hau da, beste garaiko prozedurak erabiliz hil zuten, torturen maila erabat bortitza izan zen.

Egunero heldu eta mehatxu ezberdinak topatzea, zeharo gogorra egin zituen egun haiek. Egunero gutariko norbaiten atzetik genituen enpresaren kotxeak segika, logo eta guzti. Oso argi zuten haien kontra bideratutako kanpainaren egileak isilarazi behar gintuztela, modu batean ala bestean.



Komunikabide propio bat lurraldean bertan izatea borroka asko indartu eta bultzatu zuen, hori oso argi daukagu. Zergatia? Heziketa eta kontzientziazio ekintzek asko lagundu zutelako, baina baita guzti horri hedapena ematea ere. Jendeak deitu, galdetu, iritzia bota, kanpainetan lagundu zezakeen... hau da, joan-etorriko komunikazioa genuen komunitatearekin. Edateko ura edo energia elektrikoa ez izatearen errealitatea meatzaritza enpresak izango zituen pribilegioekin alderatzen genituenean, jendeak suak hartu eta atoan deitu egiten zuen. Asko eskertu egiten ziguten beste bertsio bat kontatu izana: jendea oso kezkatuta zegoen uragatik, haien lurragatik, beraien etxeagatik. Enpresa, alde batetik, kanpaina mediatiko bat burutzen ari zen jendeari garapena ekarriko ziola esanez baina, bestalde, komunitateko arau guztiak zapuzten ari zen, nahi erara. Guzti hau alkateen baimenarekin noski, hauekin tratua eginda zutelako jada.

Komunikatzaile gisa, defentsa-aktibismoa egin genuen, komunikazioaren indarrak baliatuz. Esperientzia mingarria da egia esanda baina, batez ere, jendea ahalduz denean eta komunikabidea benetako tresna indartsu gisa antzematen duenean, horrek asko laguntzen dizu aurrera jarraitzeko. Ikaragarria izan zen, sinestezina zentzu askotan. Adibidez, irratia mehatxatu zutenean, jendeak hilabete oso bat eman zuen hura zaintzen. Gau eta egun txandakatzen ziren, taldeak egiten zituzten. Denbora horretan gu ez ginen lotara joaten etxeetara, seguruago sentitzen ginelako geltoki barruan. Ordurako, mehatxuak gure mugikor pertsonaletara bidaltzen zizkiguten. Zelatatzen gintuzten, larderia estrategia bat zen.

Hasiera batean, mehatxu kolektiboak erabiltzen zituzten. Baina gero posta eta mugikorretara pasatu ziren. Azkenean, gure familiak ere mehatxatzen hasi ziren. Azken hau asko asaldu gintuen, seme-alabak genituen emakumeak bereziki. Egun horietan nolabaiteko beheraldi bat izan genuen, baita beldurra sentitu ere, gure erantzukizunean zeuden adingabeak zirelako azken finean. Kasu honetan bai nabaritu dezakegula ezberdintasun hori gizonekiko mehatxuen kasuan. Oso egoera latzak direla argi dago, denontzat, baina, emakumeon kasuan, ñabardura konkretu bat ere badagoela ezin dezakegu ahaztu.

Fiskaltzan irratia egindako mehatxuen gaineko salaketa jarri zenean, segurtasun neurri bereziak jarri zizkiguten, egunerokotasunaren dinamika erabat aldatu zutenak. Estatuak, segurtasun hori nori emango dion zehaztu egiten da garrantziaren arabera: bata pertsona ospetsuentzat, bestea delituren baten lekuko izan den jendearentzat. Irrati komunitario txiki bat ginenez, ez ginen pertsonaia garrantzitsuen sailkapenen horretan sartzen. Beraz, irratia azken talde horren barruan zegoen. Estatuak emandako segurtasun kategoria horri *TPI* deritzo.

Segurtasun neurri hauen arabera, ezin ginen kaletik gauzez bakarrik ibili ezta festetara joan, izan ere, gure erantzukizun osoa baitzen zeozert gertatu izatekotan. Gutariko askok bizkartzainak ere eramanez behar izan zituzten. Hori zela eta, bizkartzainak zituzten emakume asko oso deseroso sentitzen ziren eta, sarritan, baita segurtasun eza ere, hauek uneoro gainean izateak sentsazio hori areagotu baino ez zuen egiten. Gainera, aipatu beharra dago, maiz bizkartzainek ez dutela berebiziko prestakuntzarik jaso eta emakumeak behartu egiten dituzte, erabilitako hizkerarekin edota jokaera eskatzeko moduekin esaterako. Zu kontrolatzeko agindua bete bai, baina emakumea zarela, seme-alabak dituzula edota gizonezkoekin alderatuz beste




testuinguru ezberdin bat duzula kontuan hartu barik. Guzti hau, beraz, ez da kontuan hartzen pertsonak zaintzeko sailkapen hori eratzeke garaian. Orduan, sistema beraren hutsune horiek ere identifikatu ditugu, hau da, ez dago inolako bereizketarik emakume ala gizonezko bat zaintzeko moduaren artean.

Babes prozesu hauetan, biolentzia ugari jaso behar izan genuen, gure burua biktimatzat antzematen genuen berriro ere. Fiskalak egunero zetozen galdeketak egitera eta egun osoa ematen zuten galdezka, etengabe. Gero, fiskala aldatu egiten zuten eta hasieratik hasi behar genuen prozesu osoa berriro, amaigabea zen. Bizitako esperientzia latz eta gogor horiek behin eta berriz errepikatzea oso mingarria izan zen denontzat.

Gutariko batzuek herrialdetik alde egin behar izan genuen. 2011n, adibidez, 3 hilabete eman behar izan nituen Ekuadorren. Latinoamerikako Irrati Eskola Elkartean aritu nintzen bertan, beraz, ez nuen kanpaina alde batera utzi. Horrek, nolabait, baztertu izanaren sentsazioa baretu egiten zuen behintzat, bertan komunikazioarekin lotutako ekintzak eta ikasten jarraitzeke aukera bainuen zorionez. Zure ingurugirotik baztertzen zaituzte, zure lanetik... zure bizitzatik azken finean. Nire alabarekin erbesteratzea zen asmoa, baina nik ez nuen onartu, soilik denboralditxo bat igaro nahi nuelako kanpoan. Itzultzea zen nire nahia, eta oso argi nuen hori. Batez ere nire alaba, orduan 2 urte eskas zituen, ni bizi izan nuena errepikatzen ari zela sentitzen nuelako. 8oko hamarkadan erbestera ihes egin behar izan nuen ni, erabat bidegabekoa zen egoera batek behartuta eta gurasoek bizirauteko zuten ezintasunagatik gerra zela medio; eta orain, 2011n, alabarekin ihes egitera behartzen naute berriro ere. Ni itzultzea lortu nuen, baina kide asko kanpoan diraute oraindik, herrialdeak berak ez dituelako benetako segurtasun neurriak bermatzen. Itzultzean lanean jarraitu nuen: kanpainarekin, irratan, meatzaritzaren kontra sortutako espazio eta erakundeetan, irrata beraren bozeramaile gisa hainbat tokitan...

Une benetan latzak pasatu genituen. Hala ere, meatzaritzaren zapalkuntza horren aurkako borrokatzearen helburu finkoa izatea eta, batez ere, komunitatearen babes osoa izatea, aurrera jarraitzeke zeharo indartzen gintuen. Duda-muda uneak ere izan baziren, lur jota geunden askotan, gure familiengatik kezkatuta... Guztiz zaugarriak gara, ez dugu inolako babesik. Mehatxatzen gintuzten eta erailtzeko arriskuan geunden, Marcelo bera hil zuten antzera. Baina eskura genituen baliabideak agortzeko autua egin genuen, iskanbila sortzea, aldarrikapenak plazaratzea. Jasotzen genuen edozein mehatxu argitaratzen genuen. Salaketa hauek publiko bilakatzea nolabaiteko babesa ere eskaini zigun.

Gure lekukotasuna zuzenean kontatzeko eskubidea izatea guztiz oinarrizkoa dela uste dugu, enpresa hauek eragindako kalteen norakoak neurtzeko kasuan batez ere. Kalte hauek neurtzean, orokorrean, ikusgai edota begien bistakoak direnak baino ez dira aztertzen, baina ez dira kontuan hartzen osasun emozionalarekin zerikusia dutenak: emakumeengan eragiten dutenak, familietan, esparru sozialean... Irratian bertan honakoak pairatu genituen, edonoren beldur ginen zenbait momentutan. Enpresa hauek eragindako zauri psikologiko hori guztiz neurgaitza da, eta hortik aurrera eguneroko bizitzaren parte bilakatuko dena. Gainera, benetako osatzea ez da inoiz lortzen, hau da, ezerk ez zaitu ziurtatzen arriskupean gehiago bizi ez izatea. Polizi ikerketen emaitza zehatzik ez dago ere. Egoera handizkatzen eta puzten genuela leporatzen




ziguten, irratiko langileok eskandalua besterik ez genuela bilatzen eta herrialdetik ateratzeko egiten genuela, beste leku batera eramateko asmoarekin. Honako zurrumurruek poliziak berak zabaltzen zituen. Haien jarrerei ere aurre egin behar izan genien beraz. Ez genuen martiri bilakatu nahi, jada El Salvador martiriz betea dago, eta mundua bera ere bai, horietako bat gehiago izan nahi izateko. Bizitza bera defendatu nahi dugu, bizirik jarraitu nahi dugu; hilda ez diogu inori inolako mesederik egiten.

Horren ondoren, irratia berrikuntza instituzional prozesu bat bizi izan zuen. “Ongi-Bizitze” deritzon paradigma hura lortzea zen helburua, bizimodu ezberdin batean oinarritua. Prozesu honen baitan, konpromiso instituzional batzuk ere hartu izan dira eta, orduetik, horretan ari gara. Etorkizunerako hitzarmen edo nolabaiteko nabigazio-karta bat eratu egin da, 10 urte barru elkar ikusteko aukera ematen diguna eta testuinguru politiko nazionala, nazioartekoa eta tokikoan-tokikoak kontuan hartzen dituenena. Gizakion gaitasunak jartzen ditugu prozesuaren ardatz nagusi gisa. Bizitza ikusteko beste modutik, Ongi-Bizitze horretan oinarritua eta komunikazioa egiteko beste jarrera baten aldekoa, gizatiagoa alegia.

Sortu zitzaizkigun erronken artean, garrantzitsuenetako bat emakumeen parte hartzea sustatzearena izan zen. Berriemaile sarea izan badago, emakumeen partaidetza handia duena, baina emakumeen ahalduntze handiagoa nahi dugu benetako erabakiak hartzeko uneetan, zuzendari lana egiten alegia. Irratia honen isla ere bada. Elkartean, esaterako, ez da emakume presidenterik egon kasik. Emakumeontzat esperientzia oso garrantzitsua da, izan ere, espazio horietan, orokorrean behintzat, emakumeok ez baitugu lekurik, sistemaren eraikuntza dela eta.

Esparru psikologikoa asko zaindu beharreko beste ataza dugu. Segurtasuna eta arlo psikologikoa lantzeko tresnak bideratzen ari gara orain. Edozein erakunderentzat, hain gogorra izan den esperientzia baten ondoren, autozainketa prozesu hauetan parte hartzea ezinbestekoa suertatzen da nire ustez. Joandako lankide askok bizitako borroka prozesu guztia bizitza erabat eraldatu ziela aitortu izan digute. Osasunaren partetik, gastritis arazoak pairatzen hasiak gara, lo egiteko zailtasunak areagotu egin dira baita, estres edota nerbio-sisteman emandako gaixotasunen ondorioz. Hala ere, gaitz hauek aitortzea edo publiko egitea oso mingarria da gizonezkoen kasuan, adibidez, bizitako une latz horietan haiek ere beldur zirela onartzea oso zaila delako. Guztiz matxista den sistema batean bizi ohi gara eta, beraz, soilik emakumeak autozainketaz hitz egin dezakegunak garela dirudi, gizonezkoen ardura ez balitz bezala. Gizon eta emakumeen arteko rol hauek hain finkatuta izateak autozainketaren garrantzia zeharo murriztu egiten du, denontzako onuragarria den heinean gainera ere.

Irratiari dagokionez, segurtasun digitalari lotutako jardunaldi batzuk izan genituen, betiere esparru teknikoa landuz lehenbizi, eta defentsa pertsonalean oinarrituak ondoren. Baina, hala ere, inoiz ez genuen hitz egiten gure sentimenduen inguruan, nola edo zer sentitzen genuen une konkretu haietan. Gutariko bakoitza, norbanakoak bizi duen testuinguru eta joeraren arabera, bere erara moldatzen joan zela uste dut. Emakumeak batzen ginenean, zenbait gizonezko ere han zirela, hitz berberak errepikatzen ziren denon ahotan: “beldur naiz, ezin izan dut lorik egin atzo gauean, honakoa sentitzen dut, antsietateak jota nago,



kontzentratzeko arazoak ditut...” Solasaldi hauei esker sintomak nolabait identifikatzen eta zehazten joan ginen, gure sentipenak plazaratzen, eta irratia beraren dinamika ere moldatuz joan zen. Hala ere, gu irрати gisa behintzat, ez dugu mekanika propio bat bideratu aspektu psikologiko hau behar bezala gainditzeko. Gutariko askok espazioak eta baliabide ezberdinak aurkitu ditugu aurrera egin ahal izateko, baina hainbat eta hainbat kide ezinegon horretan geratu dira eta gaixotasun hauek beste jokaerak ere ekarri izan dituzte: haserreak, nekeak edota gehiago lanean jarraitu nahi ez izana, edo ez bizitasun berarekin bederen. Azken finean, ondorioak hor bertan ditugu eta nabariak dira edonorentzat.

Beraz, autozainketa prozesu horretan zerikusi handi du gizonezko ala emakumezkoen ikuspuntutik errealtatea antzematea. Hala ere, desberdintasun hau, ez dut uste hemen soilik ematen denik, baizik eta edozein tokitan ere topatu dezakegu. Nire aburuz, ezin izango dugu aurrera egin emakumezkoek bakarrik aritu ezean. Oso kontziente izan behar gara osatze hauen beharraz, eta erantzukizuna hartu hala izan dadin. Izan ere, gu osasuntsu egonda, bai fisikoki zein emozionalki, lan sakonagoa burutuko dugu. Gizakiak garen heinean, sentimenduak eta sentipenak ditugu, adierazteko bide ugari dituzten gorputzez osatuak, ez gara makina bizigabeak.

Sekula ez nuke imajinatuko honenbesterako barne indarra nuela nire baitan, beste jarrera eta espazio berriak ere ezagutzeko aukera eskaini didana. Ni komunitate batetik etorritako emakume bat naiz, landa eremukoa. Nire ezagutza bakarrak artoa edo babak ereitea dira, tortilak egitea... Betidanik emakumeoi egotzi zaizkigun horiek. Irratian lan egiteak beste ezagutza mota batzuetara heltzeko ateak parez-pare zabaldu dizkit. Lehenengoa, eta garrantzitsuena agian, nire ahalmena emakume gisa onartzea. Baita emakumeon aniztasunaren baitan, elkarbanatu daitezen ahalmenak badaudela antzematera ere. Nire burua defendatzaile gisa onartu eta aitortzeko aukera eskaini dit. Haien eskubideen alde lanean dirauten emakume asko izan badira, baina ez dituzte euren buruak defendatzailetzat hartzen. Nire kasuan, Marixela bezala, komunikazio defendatzaile gisa aldarrikatzea suposatu du, aldi berean defendatzaile komunitarioa ere naizen heinean.

Erbestean bizirauteko borrokatu izanagatik, bizi baldintza hain eskasetan, dugu ikuspuntu hain positibo hau, nire ustez. Oso pozgarria da han bizi izan ginen hainbat eta hainbat emakume eta gazte zenbait antolakuntza eta erakundeen baitan egotea gaur egun, benetan harro egoteko modukoa. Lurraldeari zegokionez mugatuta geunden bai, baina ideiak ezin izan zizkiguten moztu. Errealitate berri bat eraiki genuen. Berpiztu egin ginen eta mundu berri bat sortu genuen, komunitate kolektibo gisa hasi zena. Gaur egun dugun oparotasuna eta ezagutzak sortutako esperientzia komunitario horren oinorde zuzenak dira: nortasunaren sendotzea, komunitate gisa aitortu eta bizi izatea. Santa Marta ez da lur eremu soila; Santa Marta historia da, ideiak, adierazpenak... Borroka eredu bilakatu da jada.

“Borrokatzeagatik eta bizitza defendatzeagatik hilda ez izatea nahi dut nik. Horrelako mundu bat nahi nuke” hau lortu ahal izateko gidaliburu bat izatea gustatuko litzaidake, baina tamalez ez da hain erraza. Lurra, ura edota euren herriak defendatzeagatik emakumeak erailak ez gaitezen mundu bat, Berta Cáceres



hil zuten antzera, hain oinarrizkoak diren eskubideen alde borrokatzeagatik. Jazarriak izan ez gaitzen mundu bat, behin betiko defentsiban bizitzeari uko egiteko, egun egiten ari garen guztia bertan behera utzi genezaken errealitate bat. Nahiz eta negarrik bota gabe kontatzen ikasi, malko ugari bota izan ditugu; nahiz eta beldur izan gabe kontatzen ikasi, asko sufritu izan dugu. Libre eta nahieran gauzak egiteko aukera izan genezakeen beste mundu bat, jazarriak izan gabe, erailak izan gabe. Hainbat eta hainbat emakumek bizia eman dute zoritxarrez... Baina guk ez dugu inolako kontrolik. Bizi dugun errealitate erabat patriarkal honek sistema kapitalista gero eta gehiago indartzen du, emakumeak erailtzen dituen sistema bera. Sistema bortitz honek egoera honen larritzearen erantzule zuzena da, betiere estatuen laguntzarekin batera noski.

Dolurik gabeko mundu bat amesten dut. Imajinatu zenbat lan dagoen oraindik egiteke orduan. Puntu horretan defendatzaile asko eta asko guztiz atsekabetu egiten dira, osasun arazoak direla medio edota haien familiak utzi behar izaten dituztelako. Sistemak, bere estrategien bitartez, zeharo lanpetuta egotera bultzatzen gaitu, gure osasuna babesten ikasiz eta biolentziaren kontra borroka eginez, gure zoriontasunean pentsatzen egon beharrean. Inguratzen gaituenaz osotasunez disfrutatzeko: naturaz gozatzeko, seme-alabekin paseoan ibiltzeko, familiarekin, nire amarekin... Baina, tamalez, sistemaz nola defendatu gaitzakeen pentsatuz ematen ditut egunak.

Beraz, matxismotik, patriarkatutik eta defendatzen beharrean bizi ez ezik, egunak osotasunez gozatuz eman beharko genituzke. Ez litzateke hori zoragarria izango akaso?